




## 7. ARIKETA: GARRAIO ZINTAK

Garraio zintak eta plataforma mugikorra dituen sistema bat automatizatu nahi da.

Sistema honek, sarrerako garraio zintetatik (GZ1, GZ2 eta GZ3) datozten fardelak (paketeak), irteerako garraio zinta bakarrean (IGZ) jasotzea ahalbidetzen du. Honetarako, sistemak errailetatik dabiltzan plataforma mugikorra du eta bere gainean, garraio zinta mugikor bat (GZM).

Aipatutako elementuen gain, sistemak beste hauek ditu:

- **P1**, **P2** eta **P3** ibilbide amaierako sentsoreak, plataforma mugikorraren azpian kokatuak daudenak: "1" balore logikoa ematen dute, plataforma mugikorra sarrerako dagokion garraio zintaren aurrean dagoenean, hau da, fardel bat jasotzeko toki egokian dagoenean.
- **C1**, **C2** eta **C3** zelula fotoelektrikoak: "1" balore logikoa ematen dutenak, fardelak argia izpia eteten duenean. Haien helburua, fardela sarrerako garraio zinten amaieran dagoela adieraztea da.
- **CPE** eta **CPS** zelula fotoelektrikoak, "1" balore logikoa ematen dutenak, fardelak argia izpia eteten duenean. Haien helburua, fardela plataforma mugikorreko garraio zintaren hasieran edo amaieran dagoela adieraztea da.
- **ED** eta **EI** segurtasunerako ibilbide amaierako sentsoreak, plataforma mugikorra errailen muturrera iritsi dela adieratzen dutenak "0" balore logikoa emanaz.





- *MGZ1*, *MGZ2*, *MGZ3* sarrerako garraio zinten motorrak dira, *MGZM* plataforma mugikorreko garraio zintarena eta *MIGZ* irteerako garraio zintaren motorra da.
- *MPM* plataforma mugikorreko motorra da, esker eskuma mugitzen duena.

Sistemaren funtzionamendu automatikoa hurrengo da:

- Sarrerako garraio zintak, denbora guztia abiadan egongo dira. Fardel bat garraio zintaren amaierara iristen denean, garraio zinta gelditu beharko da, plataforma mugikorra fardela jasotzera joan arte.
- Orduan fardelaren transferentziari hasiera ematen zaio: fardela duen sarrerako garraio zinta eta plataforma mugikorreko garraio zinta, batera mugitu behar dira.
- Fardela plataforma mugikorreko garraio zintan dagoenean, plataforma mugikorra irteerako garraio zintaruntz mugitu beharko da, behar bada.
- Azkenik, fardela plataforma mugikorretik irteerako garraio zintara transferitu behar da, sarrerako transferentzian zehaztu den bezala.

Honetaz gain, beste baldintza hauek bete behar dira:

- Irteerako garraio zinta denbora guztia abiadan egon beharko da.
- Sarrerako garraio zinta bat baino gehiago plataforma mugikorra itxaroten geldirik badaude, honen lehentasuna *GZ1*, *GZ2* eta *GZ3* izango da.
- Sarrerako garraio zintetan fardelik ez badago, plataforma mugikorra irteerako garraio zintaren aurrean, geldirik egongo da.

Larrialdietan sistema gelditu behar da, *AL* iltzatu-pultsagailua (kontrol-mahian dagoena eta "enclavamiento" duena) edo plataforma mugikorraren errailen muturretan dauden *ED* eta *EI* sentsoreen bidez. Larrialdia desagertu dela, kontrol-mahaian dagoen langileak adierazi beharko du, *R* errearme pultsagailua pultsatuz eta *AL* iltzatu-pultsagailua bere jatorrizko egoeran jarritz.